Eraikuntzen Azterketa Teknikoa (EAT) informazino eta aurrediagnostikorako tresna bat da, begiz egindako ikuskapen baten oinarritzen dana. Horren bidez eraikinaren egiturea, fatxadea, estalkia eta saneamendu-sarea eta hornidura-sareak aztertzen dira.

Era berean, eraikinaren inguratzailearen eta instalazinoen ganeko eta oinarrizko irisgarritasun-baldintzen ganeko ebaluazinoak egin beharko dira eraginkortasun energetikoaren ziurtagiria osotzeko.

**Helburua eraikinak dituan akats eta kalteak identifikatzea da.**

Maiatzaren 20ko 80/2014 Dekretuak ezarritakoaren arabera, 2017ko bagilaren 27an 50 urte edo gehiago daukiezan bizitegi-eraikinek EAT azterketa bete eta aurkeztu beharko dabe urte beteko epean.

Eraikinen Azterketa Teknikoari buruzko informazino gehiago: www.mungia.org

**EAT aurkeztea eta erregistratzea:** EATa Udalean aurkeztu ostean, Udalak erregistratu egingo dau Eusko Jaurlaritzak horretarako prestatu dauen EUSKOREGITE plataforman.

## Inspección Técnica de Edificios (ITE)

La Inspección Técnica de Edificios (ITE) es un instrumento de información y pre-diagnóstico que inspecciona visualmente la estructura, fachada, cubierta y redes comunes de saneamiento y abastecimiento de un edificio.

**EL OBJETIVO ES IDENTIFICAR LAS LESIONES Y DETERIOROS DE LOS EDIFICIOS.**

La ITE incluye una certificación de eficiencia energética para la que evalúan  la envolvente e instalaciones, así como las condiciones básicas de accesibilidad del edificio.

**EL AYUNTAMIENTO SE ENCARGARÁ DE SUBIR LAS ITE-S AL REGISTRO DEL GOBIERNO VASCO EUSKOREGITE.**

Es obligatorio disponer y presentar la ITE en el plazo de un año para aquellos edificios de uso predominantemente residencial que, a fecha 27 de junio de 2017, tengan una antigüedad igual o superior a 50 años.

Más información sobre la Inspección Técnica de Edificios: www.mungia.org

# LED argi barriak Zabalondon

**Iluminación sostenible.**

Se han sustituido 60 luminarias por lámparas LED en la zona de Zabalondo con un presupuesto de 30.000€. Este reemplazo trae consigo un gran ahorro energético y una reducción de las emisiones de CO2.

**ARGIZTAPEN JASANGARRIA.** Zabalondoko eremuan 60 luminaria ordezkatu dira LED lanparak jarrita. Ordezkapen honek aurrezpen energetiko handia eta CO2 emisioen murriztapena ekarriko ditu. Horretarako 30.000€-ko aurrekontua erabili da.



# Aste berdea



1. Ingurumena zaindu eta ezagutzeko umeentzako tailerrak egin ziran bagilean. Ganera, Udaletxeko erakusketa-aretoan **Vespa velutina** edo asiar liztorrari buruzko hitzaldi interesgarria bere jaso zan.



2. Ingurumenaren Nazioarteko Eguna dala eta, bagilaren 5ean, Ingurumen **Jaia eta tailer tematikoak** egin ziran Matxin Plazan. Ume askok hartu eben parte ekintza honetan.



3. Asimismo, el 18 de junio, en colaboración con la asociación Butroi Bizirik Trantsizioan, se realizó una **salida para identificar mariposas**. Las y los participantes hicieron un pequeño recorrido donde tuvieron la oportunidad de conocer las mariposas de nuestro entorno.

# Tokiko Agenda 21en Interforoa eta Udal foroa

Pasa dan maiatzean Mungiako Eskolako Tokiko Agenda 21en Interforoa eta Udal foroak gauzatu ziran Mungiako adin desbardinetako ikasleakaz.

Interforoan **kontsumo arduratsuaren** inguruko herriaren diagnostikoa egin zan. Honen inguruan, Udalari eskaerak egin jakozan eta eskolek hartuko dabezan konpromisoak proposatu ziran.

Ondoren, Udalforoa egin eben. Bertan, 2016eko Interforo-Udalforoan aurkeztutako eskaerei erantzuna emon jaken eta eskola bakotxak ikasturtean zehar egindako lana aurkeztu eban.

El alumnado de Mungia ha tratado el tema del consumo responsable en el Interforo de Agenda Local 21 de este año.



Gaztetxoek interesa erakutsi eben euren eskaerak eta proposamenak azalduta.

# Berba-Proben XII. edizinoa

Maiatzaren 6an, goiz osoan zehar, jokatu zan Mungialdeko Berba-Proben XII. edizinoa. Aurtengoan 7 taldek hartu eben parte eta hainbat jente batu zan bueltara. Giro itzela sortu zan Mungian Euskeraz alkarteak antolatzen dauen eta Taket Bertso Eskolaren eta Musika Eskolako trikitilarien laguntzagaz egiten dan jai honetan. Gauzea estu ibili zan arren, azkenean gatikarrek irabazi ebezen sari biak. Sariak Arrantza eta Ehiza Txokoan banatu ziran, bazkalostean.



# Bertso-Topaketa

Lehen Hezkuntzako 6. mailako Mungiako eta Gatikako ikasleek, ikasturte osoan bertsolaritza lantzen ibili ostean, maiatzaren 19an egin zan bertso-topaketan argi erakutsi euskuen gure eskualdean bertsolaritzak etorkizun oparoa daukala. Mikel Goiriena eta Jone Larrinaga Taket Bertsolaritza Alkarteko kideak egon ziran bertso-topaketan.



# "Euskaraz bizi nahi dut" herri-martxa

Irailaren 22an, 19:00etan, kalera urten eta euskeraz bizi gura dogula aldarrikatuko dogu guztiok batera.

Foruen Plazatik abiatu eta herriko kaleetatik egingo dan martxa hau ibilbide errazekoa izango da, ume, gazte, heldu zein edadekoek egiteko modukoa. Hasi aurretik ikastetxeetako ikasleen kantak eta Taket Bertso Eskolako kideen bertso ederrak entzuteko aukerea izango dogu. Amaitu ostean, barriz, manifestua irakurriko da. Horretaz aparte, beste hainbat gauza izango doguz: kamisetak, pegatinak...

Etorri zaitez irailaren 22an eta esan ozen: "Euskaraz bizi nahi dut".



# Cittaslow

Mungia es pueblo con distinción Slow City por conseguir crear espacios que permitan vivir de la mejor forma posible el presente, mirando hacia el futuro, pero sin olvidar el pasado.

Toda la información, a través de este enlace: www.mungia.org/cittaslow

Herriak erosoa, atsegina eta irekia izatea, ezaugarri horreek guztiak batzen dauz. Cittaslow-ri buruzko informazioa www.mungia.org/cittaslow estekan aurkitu daiteke.

# Erreportaje eta Ipuin Lehiaketa

Aurtengo Ipuin Lehiaketara 72 lan aurkeztu dira (DBHko ikasleek eginak) eta Erreportaje Lehiaketara 31 (batxilergoko ikasleenak). Liburutegiaren eta Udal Euskaltegiaren ustez –eurek ebazten dabez sariak– aurten maila orokorra aurreko urteetan baino hobea izan da. Beraz, zorionak irabazleei eta irakasleei!!!





# Sare sozial barria Gaztegunean

## Instagram en el Gaztegune

Las formas de comunicarse, compartir información y establecer relaciones han cambiado en los últimos tiempos a través de las nuevas tecnologías, Internet y redes sociales. Es, sobre todo, la juventud quien utiliza estas herramientas para relacionarse, estudiar y trabajar, entre otras cosas. Por ello, y siendo Instagram una de las redes sociales más utilizadas entre las y los jóvenes, el Gaztegune no ha querido quedarse atrás y ha abierto un perfil con el nombre mungia_gazte. Con esto, el Ayuntamiento estará más cerca del público juvenil.

**Mungia_gazte Instagram-a**

Komunikazio moduak asko aldatu dira azkenaldian. Jendearen arteko komunikazinoa ez eze, informazinoa partekatzeko modua eta herritarrakazko hartu-emona bere aldatu egin dira.

**Teknologia barriek, Internet eta sare sozialek aldaketa handia** eragin dabe gizartean, **batez bere gazteengan**, biziteko, ikasteko, lan egiteko eta hartu-emonak sortzeko moduetan.

Hori dala eta, Mungiako Gaztegunean Instagram sare sozial dinamikoa jarri da martxan eta horko profilaren izena mungia_gazte da. Gazteriak erabilten dituan sare sozialen artean Instagram nagusienetakoa da eta Gazteguneak ez dau atzean lotu gura izan. Honetara, Udala gazteakanik parajeago egongo da.

**KOMUNIKATZEKO, INFORMAZIOA PARTEKATZEKO, HARTU-EMONAK SORTZEKO ETA GARATZEKO BIDE GARRANTZITSUAK BILAKATU DIRA SARE SOZIALAK.**

Herriko ekintzetan gazteen parte-hartze aktiboa sustatzea ezinbestekoa da. Udalean eskaintzen ditugun zerbitzuak gazteriaren arabera egokitu doguz eta bide horri ekingo deutsagu gazteen beharrizanak asetzeko.






Komunikatzeko moduak aldatu egin dira, gehienbat gazteen artean. Informazinoa partekatzeko eta harremanak bermatzeko sare sozialak erabiltzen dabez, Instagram kasurako.

# Mungialdeko 2017-19 Udal Gaztedi programa

Desde el 2014, Mungialdea ha participado en varias ediciones del programa Udal Gaztedi con el objetivo de facilitar la inserción laboral de la juventud en un mercado laboral cada vez más exigente. Los resultados de este programa han sido más que satisfactorios.

Siguiendo esta línea, en mayo se firmó un convenio entre los municipios de Mungialdea (Arrieta, Bakio, Fruiz, Gamiz-Fika, Gatika, Laukiz, Maruri-Jatabe, Meñaka, Mungia) y la Diputación Foral de Bizkaia para realizar el Udal Gaztedi Mungialdea 2017-19.

Las acciones a realizar durante este año son: Certificado de profesionalidad de Actividades Auxiliares de Comercio, incluido período de prácticas remunerado; Formación en Inglés nivel A1.; Formación en Informática y Concurso de ideas empresariales y Talleres de emprendimiento en centros escolares.

### Prestakuntza ikastaroak eta praktikak

Mungiak, Mungialdea osatzen daben ganerako udalakaz batera (Arrieta, Bakio, Fruiz, Gamiz-Fika, Gatika, Laukiz, Maruri-Jatabe, Meñaka), 2014tik hona Udal Gaztedi programaren (lehen Gazteplana deiturikoa) hainbat edizinotan hartu dau parte. Programa honen **helburua gazteria lan-merkatuan txertatzea erraztea** izan da. Programa honen emaitzak oso onak izan dira.

18 urtetik 30 urtera bitarteko Mungialdeko gaztea bazara, emon izena Mungialdeko Behargintzan.

Hori dala eta, aitatutako helburuagaz, aurtengo maiatzaren 16an **Mungialdeko udal desbardinek eta Bizkaiko Foru Aldundiak lankidetza hitzarmena sinatu** eben Mungialdeko 2017-19 Udal Gaztedi programa bideratzeko.

### ZABALDU ATEAK ZURE LANBIDE-ETORKIZUNARI, IZENA EMOTEKO EPEA ZABALIK!

2017-19ko Udal Gaztedi programaren barruan, Mungialdeko 18 eta 30 urte bitarteko gazteentzako **hainbat prestakuntza ekintza** antolatu dira gazteen enplegagarritasuna bultzatzeko. Besteak beste:

- Merkataritzako jarduera lagungarrien Gaitasun Ziurtagiria, ordaindutako praktikaduna. (230 ordu teoriko eta 200 ordu praktiko komertzioetan).
- Ingeleseko A1 mailan prestakuntza (150 ordu).
- 3. Informatikako formazinoa (190 ordu).
- Empresa ideien lehiaketa eta tailer ekintzaileak ikastetxeetan.

**Argibide gehiago/Más información:**
Mungialdeko Behargintza
(Gamiz Bidea, 32).
Tel.: 94.615.62.44
www.mungialdeko-behargintza.com

# Mungia entre los municipios con mayor volumen de contratos registrados

### Datos del Servicio Público de Empleo Estatal (SEPE)

Según el último boletín de publicaciones oficiales de la Administración General del Estado, realizada por el Servicio Público de Empleo Estatal (SEPE) en relación al primer trimestre del 2017, la localidad de Mungia está entre **los municipios con mayor volumen de contratos registrados.**

Desde 2012, **Mungialdeko Behargintza** es reconocida como Agencia de Colocación Homologada por el SEPE. Este reconocimiento hace que la entidad tenga la obligación de **reportar mensualmente un informe al SEPE** con la información correspondiente a los servicios de orientación e intermediación que se ofrecen, así como una memoria anual donde se recoge toda la actividad desarrollada a lo largo del ejercicio anterior.

La información publicada en este boletín es generada por los informes mensuales que se remiten al SEPE y **desde Mungialdeko Behargintza** mostramos nuestra satisfacción por los resultados obtenidos.

| MUNICIPIOS DE MAYOR VOLUMEN DE CONTRATOS REGISTRADOS | | |
|---|---|---|
| MUNICIPIO (2) | TRIMESTRE ACTUAL | VARIACIÓN ANUAL %(1) |
| BILBAO | 45.367 | 8,85 |
| SANTURTZI | 5.115 | 146,27 |
| GETXO | 3.695 | 1,46 |
| AMOREBIETA-ETXANO | 3.179 | 8,02 |
| ZAMUDIO | 2.411 | 5,98 |
| GALDAKAO | 2.081 | 76,80 |
| MUSKIZ | 1.814 | 76,80 |
| DURANGO | 1.626 | 10,61 |
| VALLE DE TRÁPAGA-TRAPAGARAN | 1.626 | 19,12 |
| MUNGIA | 1.409 | 9,22 |

# Creación de Empresa

### BALANCE DE CREACIÓN DE EMPRESA 2016

2016 se ha saldado con la **apertura de 28 negocios** que han contado con el apoyo técnico de Mungialdeko Behargintza y que han generado un total de **41 puestos de trabajo**. El 24,30% de los negocios que se han creado han sido del sector servicios, el 21,40% del comercial, el 17,8% del ámbito de la hostelería, el 14,20% del sector primario (agricultura), del sector industrial el 7,1% y el 3,5% de la construcción.

> Mungialdeko Behargintzaren laguntza teknikoagaz 41 lanpostu sortu dabezan 28 negozio zabaldu ziran 2016an. Horren ganera, 14 tailer tematiko egin dira pertsona ekintzaileakaz, baita enpresa-kudeaketako 30 orduko hiru kurtso bere.

En el ejercicio de 2016, 97 personas han pasado por Mungialdeko Behargintza para trabajar sus ideas empresariales. Se han realizado **14 píldoras formativas** con personas emprendedoras (talleres temáticos) y **tres cursos de gestión empresarial** de 30 horas de duración.

### AYUDAS ECONÓMICAS POR CREACIÓN DE EMPRESA 2017

Entre los **distintos programas** que se impulsan desde Mungialdeko Behargintza destacamos el dirigido a **apoyar la puesta en marcha de negocios por parte de personas desempleadas.** Las personas desempleadas que han montado un negocio partiendo de situación de desempleo con alta en el IAE comprendida entre el 16 de septiembre de 2016 y el 15 de septiembre de 2017 pueden acceder a las ayudas de creación de empresa de Diputación Foral de Bizkaia (5.000€ destinados a la persona promotora).

A tal efecto, las citadas iniciativas empresariales tienen que contar con una tutorización por parte de una entidad como Mungialdeko Behargintza para disponer de un informe de viabilidad económica, un plan de negocio y tendrán que haber realizado un curso de gestión empresarial de 30 horas de duración.

En 2017 ya se han impartido dos cursos de gestión empresarial asociado a este programa de ayudas públicas, estando prevista **la siguiente acción formativa para el mes de septiembre.**

> Mungialdeko Behargintzak bultzatzen dituen programa desbardinen artean pertsona langabetuek negozioak martxan iminteko egindakoa nabarmentzen dogu. Horreek Aldundiaren enpresa sorrerarako laguntza lortu leikie. Horretarako, enpresa-ekimenok tutorizazino baten beharra daukie, Mungialdeko Behargintzak emoten dauenaren modukoa.

# Nuevo ciclo en Formación Profesional Básica

### Informática y Comunicaciones

Como novedad para el curso escolar 2017/2018 en el Centro de Formación Profesional Básica de Mungia se inicia la impartición de un nuevo ciclo formativo: Informática y Comunicaciones.Para ello, el Ayuntamiento de Mungia realizará durante este verano las obras necesarias para adecuar las instalaciones.

Por lo tanto, durante el próximo curso se impartirán las especialidades de:

- 1º de Informática y Comunicaciones
- 2º de Mantenimiento de Viviendas

Asimismo continúan su formación en segundo curso las especialidades de Peluquería y Cocina y Restauración.

### Ziklo barria Oinarrizko Lanbide Heziketan

**Informatika eta Komunikazinoak**

2017/2018 ikasturterako Mungiako Oinarrizko Lanbide Heziketako Zentroak prestakuntza ziklo barria eskainiko dau, Informatika eta Komunikazioak hain zuzen. Horretarako, instalazinoak egokitzeko lanak egingo ditu udan zehar Mungiako Udalak.

Beraz,hurrengo ikasturtean ondoko espezialidadeak eskainiko dira:

- Lehen maila: Informatika eta Komunikazinoak.
- Bigarren maila: Etxebizitzen Mantentze Lanak.

Horren ganera Ile Apainketa eta Sukaldaritza eta Jatetxe-Arloa espezialitateek bigarren kurtsoagaz jarraituko dabe.



# Herritarrak animatzeko Ardao Azokara

## Musika, jokoak eta kutsu solidarioa

Urrutia Edariak enpresak antolatuta, eta Mungiako Udalaren laguntzagaz, joan dan maiatzean **Ardao Azokaren bigarren edizinoa** ospatu zan Aurelio Artetxe aparkalekuan. Guztira **15 postu jarri ziran** eta horren ganera, umeentzako puzgarriak eta Taberna Ibiltaria bere bertan izan ziran, eta festa-giro ederra sortu zan.

**II. Pintxo Lehiaketakosarituak:**

- Epaimahai teknikoaren lehenengo saria: *Korrontzi*
- Epaimahai teknikoaren bigarren saria: *Izarra Kafetegia*
- Epaimahai teknikoaren hirugarren saria: *Eguzkilore Station*
- Herri-epaimahaiaren saria: *Torpedo Gorria*



Eguzkiaz laguduriko giro aparta izan zan Ardao Azoka egunean.



Korrontzi tabernak irabazi eban epaimahai teknikoaren lehen saria.

Azokagaz batera, **II. Pintxo Lehiaketa** ospatu zan. **36 tabernak hartu** eben parte eta, zero kilometroko produktuak erabilita, maila ezin hobeko pintxoak eskaini ziran.

Horren ganera, Mungiak hartu dauen bide solidarioari jarraituz, bigarren urtez, azokan egindako dastaketetan **bildutako dirua** Friedreich Ataxia gaixotasun arraroari aurre egiteko lan egiten dauen **STOP FA alkarteari emon** jakon.

El pasado mayo se celebró la segunda edición del Ardao Azoka. Los 15 puestos ofrecieron productos de la zona y lo recaudado fue a parar a la asociación STOP FA.

# Establezimenduz-establezimendu herria apaintzen



Merkataritza kategorian REMIT dendak txunditu eban epaimahaia.



Torpedo Gorria taberna izan zan irabazlea Ostalaritza kategorian.

## Loraz bete ziran komertzioak

Udabarri honetan herriko establezimenduak loraz jantzi ziran Mungialdeko Behargintzak eta Mungiako Merkatari eta Ostalarien Elkarteak alkarlanean antolatutako Establezimenduak **Loraz Apaintzeko Lehiaketaren** bidez.

**PARTE HARTZAILEAK:**

Bioleta Munduan, Dos dedales, Elena Modak, Impulso, Inmobiliaria Beitia, Lekanda Floristas, Modas West, Dizdira Ileapaindegia, Puk&Co, Remit, Ryelma, San Jose Etxe-Alai nagusien egoitza eta Torpedo Gorria.

Apirilaren 24tik maiatzaren 5era euren itxurarik ederrena erakutsi eben **herriko 13 establezimenduk.** Edizino honetan, epaimahai profesionalak erabakitako establezimendu **irabazleak** ondokoak izan ziran: **REMIT**, Merkataritza eta zerbitzu profesionalen kategorian, eta **TORPEDO GORRIA**, Ostalaritza kategorian.

Atzera bere parte-hartzaile guztiak zoriondu gura doguz egindako lan bikainagaitik eta proposatutako ekintzetan parte-hartzeko egiten daben ahaleginagaitik.

REMIT se alzó con el premio en la categoría de comercio mientras que TORPEDO GORRIA ganó en la de Hostelería en el **Concurso de Establecimientos con Flores.**

# Sorginen gaua




San Juan gaua, Udal Musika eta Dantza Eskolako ikasleek urtero egiten daben **Euskal Dantzak ikuskizunagaz** hasi zan. Kurtsoan zehar egindako lana eta ikasitakoak erakutsi ebezan Matxin Plazan.




**La Feria de Artesania Mungart** mostró, en su segunda edición, productos artesanales elaborados con distintos materiales y las fantásticas habilidades de muchas y muchos mungiarras en Izenaduba Basoa.

El parque Uriguen acogió el momento más esperado de la noche con el **encendido de la hoguera de San Juan.** Nuestras personas mayores de la residencia San José Etxe-Alai volvieron a preparar un **txorimalo** que estuvo expuesto hasta su quema. Asimismo, quienes se acercaron al evento disfrutaron de una buena chocolatada.



Suaren ostean, Uriguen parkea Izenaduba Basoak antolatutako Kepa Junkeraren eta Sorginak-en musikeagaz bete zan. Ikuskizun honetan, Junkerak abestu, dantzatu eta era guztietako perkusinoak joten dabezan emakume gazteez osotutako Sorginak taldeagaz jo eban. Eurakaz batera, Karmele Gisasola harri-jasotzailea eta Aitzol Atutxa aizkolaria, Euskal Herriko txapelduna, agertu ziran.



# *Belarritik Bihotzera* Zuzenean musika emankizuna

**Kaleetan zehar musikaz gozatzeko aukera**

Ikasturtearen bukaera ospatzeko, Udal Musika eta Dantza Eskolako ikasleek herriko gune desbardinak hartu eta musika eta sentimenduz bete eben. Bai irakasleek eta bai ikasleek eskolako ateetatik kanpo erakutsi gura izan eben musika arloan lantzen dabena eta, horretarako, batera urten eben Mungiako kaleetara egiten dakiena erakusteko.

Bagilaren 16an, *Belarritik Bihotzera Zuzenean* izeneko jardunaldia eskaini eben ikasleek. Lehenengo, Mungiako txokoak biztu eta berotu ebezan kalejiran: Goieta Plaza, Euskal Pizkundearen Etorbidea, Mugire Txokoa, Butroi Kalea, Lauaxeta Plaza eta antzinako tren-geltokiko aparkalekua izan ziran agertokiak. Amaitzeko, Matxin Plazan eskaini euskuen ekitaldi eder bat.

El alumnado y profesorado de la Escuela Municipal de Música y Danza llenaron distintos puntos del municipio con sus voces y melodías. De esta forma, acercaron la música a las y los mungiarras.



Errezitalak kalera ateraten dira, Musika Eskola herrian murgiltzeko eta herrira hurbiltzeko.



## Euskal Dantzak

Horren ganera, Udal Musika eta Dantza Eskolako ikasle guztiek hartu eben parte San Juan Gauean Matxin Plazan egin zan *Euskal Dantzak* izeneko ekitaldian.

Udal Musika eta Dantza Eskolako ikasle eta irakasleek egindako lana erakusteko ekitaldiak dira, baina mungiar guztiok musikaz gozatzeko aukera bere badira.

# Zinea Kalean

Aurten bere garagarrilean zinea eskainiko dogu kalean, kultura-programazinoaren barruan udan urtero egin ohi danari jarraituta.

Doako eta edade guztietarako egokiak diran pelikula bi eskainiko dira Foruen Plazan, garagarrilaren 13an eta 27an, eguenez, 22:00etan.

Garagarrilaren 13an, StarsWars: el despertar de la fuerza eskaini da eta 27an barriz, animazino-pelikula arrakastatsu bat, Ballerina (euskeraz) proiektatuko da.

Euria egin ezkero, Andra Marin egingo da.




## Cine al aire libre

El cine al aire libre llega este mes de julio, como viene siendo tradicional dentro de la programación cultural de verano que el Ayuntamiento ofrece.

Se proyectarán en Foruen Plaza dos sesiones de cine de verano, gratuitas y aptas para todos los públicos, los jueves 13 y 27 de julio a las 22:00h.

La noche del 13 de julio pudimos ver la película StarsWars: el despertar de la fuerza y el 27 de julio se proyectará la aclamada película de animación Ballerina (en euskera).

En caso de lluvia, las proyecciones se realizarán en Andra Mari.

# Valoración de las fiestas de San Pedro

**Destacan la participación ciudadana y el buen ambiente a pesar del mal tiempo sufrido durante varios días**



Este año las fiestas se han caracterizado nuevamente por la calidad y variedad de actividades que **se han adaptado a todos los públicos, gustos y edades, con una gran participación.**

Agradecemos su presencia a todas las y los mungiarras y a todas aquellas personas que se han acercado a Mungia. Las fiestas de San Pedro son unas **fiestas plurales, participativas, respetuosas, euskaldunes e igualitarias**, y así queremos que sigan siendo.

Pese a que el tiempo no nos ha acompañado, nuestra prioridad siempre es y será el disfrute de nuestras vecinas y vecinos y de quienes nos visiten. Por eso, se ha hecho un esfuerzo extra para poder disfrutar de todas las actuaciones programadas. A pesar de dicho esfuerzo, los conciertos del día 23 no pudieron celebrarse debido a causas ajenas a la organización. Desde aquí **agradecemos al personal municipal** su gran trabajo.

**Un agradecimiento especial también a todas las asociaciones, tanto las que forman parte de la Jai Batzordea** como a las que no, por su trabajo, actuaciones y espectáculos; como siempre, éxito rotundo. Sin ellas y ellos, no sería posible la celebración de las fiestas de San Pedro.

En el ámbito de las **infraestructuras**, la gran novedad de este año ha sido el **cambio de ubicación de las txosnas**. Ha sido una apuesta muy fuerte y un cambio muy positivo. Al nuevo recinto de txosnas se han acercado cuadrillas, jóvenes, familias...gente de todas las edades que han hecho que el ambiente haya sido espectacular. Nuestro más sincero **agradecimiento a todas las vecinas y vecinos que viven en las inmediaciones** de la zona festiva por su actitud y colaboración.

Los escenarios de Foruen Plaza, Matxin Plaza, recinto de txosnas y parque Uriguen se han habilitado con el presupuesto de las arcas municipales, a propuesta de la Jai Batzordea, así como los gastos derivados de equipos de sonido, luces y también la electricidad de las txosnas. Asimismo, el Ayuntamiento ha dispuesto de retenes de suministro eléctrico, para que los distintos eventos pudieran llevarse a cabo con total normalidad.

La música es una parte importante en las fiestas y, por ello, desde el Consistorio se han destinado **75.400€ para todos los conciertos** realizados en Foruen Plaza, Matxin Plaza y recinto de txosnas, a excepción del concierto de Band Jovi que corrió a cargo de Marijata Kultura Elkartea y el de Kepa Junkera, en el parque Uriguen, que fue patrocinado por Izenaduba Basoa.

En lo que a limpieza se refiere, en el recinto de txosnas, este año se han utilizado un total de **35.000 litros de agua + solución desinfectante + solución desengrasante por día**, duplicándose la cantidad de litros/m2 destinada al efecto en años anteriores. Igualmente, este año se han instalado **9 baños portátiles en las txosnas**, uno de ellos destinado a personas con movilidad reducida, sumando así dos más que el año anterior. Por su parte, el público masculino ha contado también con **dos urinarios portátiles** en la calle Errekatxu, sumando uno más al año anterior.

Con el ánimo de paliar los efectos de la fiesta en la zona y a sus vecinas y vecinos, se ha duplicado el servicio de recogida de residuos de vidrio, envases y plásticos en la calle Berteiz. El operativo de limpieza diseñado por el Ayuntamiento ha colaborado en el éxito de asistencia, convivencia y disfrute de las fiestas.

Asimismo, desde el punto de vista de la seguridad y según datos de la Policía Local, **no se han registrado incidencias graves** y las fiestas de San Pedro han transcurrido de forma tranquila y con buen ambiente.




## Jakin izan dozu?

Jaietako paineluak Sukalki Eguneko antolatzaileak diseinatzen ditu.

**Paineluen salmentatik lortutako irabaziak Sukalki Eguneko antolatzailearentzat bideratzen dira.** Mungia Rugby Taldeak hartu dau Larramendi Ikastolaren lekukoa eta, datozen bi urteetan, alkarte hori izango da Sukalki Egunaren antolatzailea.

# Jaiak auzoz-auzo

Auzo desbardinetako alkarteetako kideek hainbat ekintza prestatu dabez mungiarrok eta inguruetatik datozenek auzoetako udako jaietan ondo baino hobeto pasetako.

Edade guztietako jentearentzat pentsatutako ekintzak eskainiko dira: herri bazkariak, gastronomia-txapelketak, umeentzako puzgarri eta jolasak, erromeriak, jokoak…

Las fiestas de los barrios traerán consigo un sin fin de actividades para el disfrute de todas y todos.

## Egutegia

Garagarrilak 21, 22 eta 29
**Llonako Madalen jaiak**

Garagarrilak 21, 22, 23 eta 25
**Laukarizko Santiago jaiak**

Garagarrilak 29, 30 eta 31
**Trobikako San Inazio jaiak**

Abuztuak 5, 6 eta 7
**Birleko Kofradi jaiak**

Abuztuak 6 eta 7
**Markaidako Salbadore jaiak**

Abuztuak 12, 13 eta 14
**Emerandoko Kofradi jaiak**

Abuztuak 19, 20, 21 eta 22
**Atxuriko Kofradi jaiak**

Abuztuak 31, Irailak 1 eta 2
**Belakoko San Antongo Eneperi jaiak**

Irailak 22, 23 eta 24
**Larrauriko jaiak**

Irailak 29
**Zumetzagako San Migel jaiak**








MUNGIA UDALA

**ARGITARATZAILEA:**
MUNGIAKO UDALA: Trobika, 1 / 48100 Mungia <Bizkaia>
Tel. 94 674 12 16 / komunikazioa@mungia.eus / www.mungia.org
**ALE KOPURUA:** 7.000
**LEGE GORDAILUA:** BI-2224/2012

Mungin geure ikurrek